

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide, buru, Lekuona, Mitxelena, Villasante, Eppherre, eta Lafitte jaun euskaltzaiñak. Etxaniz, Zabala, Zugasti, Loidi, Intxausti, Artola, eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Nazario Oleaga jauna il da. Euskaltzaindia atsekabetuta dago gizon balio aundi-koa galdu dauelako, asko ekiana, eta Euskaltzaindiari oso emona. Alargunari eta seme-alabai agertu bekie Euskaltzaindiaren atsekabea.

Jesus Maria Arenaza eta Aita Joseba Intxausti jaun urgazleen karta bana irakurri da. Nazario Oleaga-n eriotzeagaitik Euskaltzaindiari atsekabea agertzen deutsie.

Jose Antonio Loidi-n karta bat irakurri da. Eskerrak emoten deutsoz Euskaltzaindiari aurreko batzarreko izentaziñoa egiñaz beraganako agertu dauen onespengaitik.

Irigoyen-ek diño Peillen jaunak karta batean eskatu deutsalala bere partez Euskaltzaindiari errespetuzko agurra agertzeko ohoratua izan dalako urgazle legez onartuz.

Bizkaiko Diputaziñoak bialdu dauen ofizio bat irakurri da. Eretxia eskatzen deuskue barriro Aita Placido Mugica-k argitaratu gura dauen erdal-euskal iztegiak. Jakin gura dabena da iztegiak euki leien inportantzia eta utilidadea. Erantzun bekie bere utilidadea ezin ukatu leitekeala, batez be erderatik euskerara itzuli gura daberen sermolari, izlari, eta idazleentzat. Gaiñera orainarte ez tireala egin alango iztegi txikiak baiño, eta ez bear direan modukoak, eta izan be aituak dagozala. Euskaltzaindia egiten ari dan iztegiak eztaukala elburu bardiña, beste iztegi mueta bat dala.

Irigoyen-ek diño Aita Francisco Cortabitarte jesuiteagaz egon dala eta esan deutsalala igaz legez aurten be beste amar milla peseta badaukazala Euskaltzaindiak Bizkaiko neska-mutillen artean euskerazko esamiñak egin eta saritan emon daizan. Oinñarriak igazkoak eurak ontzat artu dira.

Eibar-ko Ayuntamentuan bosteun peseta kobrau dira, igaz Victoria Eugenia Teatroan Abenduan egin zan bertsolarien txapelketarako emonak.

Urtarrillaren 7-an, Bilboko Arriaga Teatroan, Euskaltzaindiak egingo dauen jaiaz berba egin da.

Erabagi zan legez Ondarroan Abenduaren 10-ean bertako neska-mutillen euskal-esamiñak egin dira. Sariak Urtarrillaren 14-an partidu gura dituz bertako Ayuntamentuak jai bat egiñik.

Dassance, Eppherre, eta Lafitte jaunak eskabide bat firmatu dabe. Jules Moulier (Oxobi) eta Jean Elissalde (Zerbitzari) euskaltzain zireanen utsuneak betetako Jean Haritschelhar eta Pierre Larzabal jaunak aurkeztuten dituez kandidato legez. Urrengo batzar batean artu beitez botoak.

Irigoien-ek diño Zarautzen esan deusiela datorren Maiatza ingurua egoki izango litzakeala Lizardi-saria emoteko eta Tolosan egin zan legez jai batzuk egiteko. Diño orretarako Euskaltzaindiak zelango oiñarriak ipiñi eta zelango saria emon erabagi bear dauela. Diño Gipuzkoako Ahorro Kaxeari eskabide bat egin bear geunskiola sari bat finkatu daian urtero emoteko. Modu orretan diruarena erabagita eukiko geunkeala aurrerantzean eta naikoa izango litzakeala saria emon eta aipatzen dan bakotxean Gipuzkoako Ahorro Kaxearen izena be esatea. Aita Zabala-k diño, poentzat bakarrik ez, bertsolarienzat be sortu bear litzakeala zerbait. Ain zuzen be bertso-paper gitxi egiten dala gaur egunean, asko kantetan bada be, eta gauza ori zerbait mogidu eragin bearra dagoela. Gai onen gainean barriketa bat sortu da eta aibat idea agertu dira. Aita Zabala-k urrengo batzarrerako ponentzia bat ekarri begi onezaz. Urtero poesia-sari bat emon daian Gipuzkoako Ahorro Kaxeari egin bekio eskabidea.

Arruza jaunak egin dauen deskargua irakurri da. Gorostiaga, Ibargutxi, Mantero, Peña, Onaindia, eta Erquiaga jaunak deskarguaren ostean firma ipiñi dabe Arruza-k agertzen dauen guztia onarturik. Mitxelena-k diño Arruza-k egin dauen deskarguan ez tireala karguak desegiten eta bana banaka argumentuak agertu dituz. Diño datorren batzarraren asieran erabagi bat artu bear dala eta Arruza jaunari Euskaltzaindiak bere fidantzea kendu bear deusala. Alan egiteko berak paper batean idatzita ekarriko dauela esandakoa. Bildutako guztiak bat datoz datorren batzarraren asieran erabagi bat artu bear dala auzia amaitzeko.

Atzo asi zan Euskalzaileen Biltzarra Donostiako Ayuntamiento zaarrean. Arratsaldean amaituko da.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

I. M.^a Etxaide

L. Mitxelena